

DESINFEKZIO PARKEKO, BAINUETXEKO, ALBAITARITZAKO ETA ANIMALIAK HARTZEKO ZENTROKO ZERBITZUEN PREZIO PUBLIKOAK ERREGULATZEN DITUEN ARAUA

10. araua

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen Lehen Tituluko III. Kapituluako 2. Ataleko 2. azpiatalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 28. artikuluan ageri den baimenaren babesean ezarri da.

Kudeaketarako eta diru-bilketarako arauak

2. artikulua.- 1) Arau honetan ezarritako prezio publikoak zerbitzua non eman eta toki horretan bertan jarritako eskudirutako kutxetan ordainduko dira.

2) Prezioak zerbitzua ematen hastean sortuko dira, nahiz horien zenbatekoa aurretik eskatzen ahal den gordailu gisa, osoki edo hein batean.

Tarifak

3. artikulua.- Aplikatu beharreko tarifak Arau honen Eranskinean daude jasota, eta barne hartuko dute, behar izanez gero, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota.

TARIFA-ERANSKINA

I. EPIGRAFEA - DESINFEKZIO PARKEA	
Desinfekzio-parkeko aretoetatik at egindako lan guztiei gutxienerako tarifa bat dagokie, kasuan kasuko lanari dagokionaz gain. Kanpoan egin beharreko zerbitzuen gutxienerako tarifa:	25,15 euro
I.1. Desinfekzioak:	
- 0 – 100 m ² bitarte	18,55 euro
- 100 – 200 m ² bitarte	28,45 euro
- 200 – 500 m ² bitarte	41,60 euro
- 500 – 1.000 m ² bitarte	70,10 euro
- 1.000 m ² baino gehiago	87,65 euro
- Desinfekzioko bestelako zerbitzuak	18,55 euro
I.2. Intsektuak hiltzeko zerbitzu bakoitzeko:	
- Disolbatu gabeko produktuekin, litro bakoitzeko:	25,15 euro
- Disolbatutako produktuekin, litro bakoitzeko:	6,55 euro
II. EPIGRAFEA – BAINUETXEA	
- Bainua bainuontzian	3,35 euro
- Dutxa	1,05 euro
- Eskuoihala	0,40 euro
- Xaboi-pastilla	0,40 euro
- Arropa garbitzea (5 Kg)	5,65 euro
- Arropa lehortzea	5,65 euro
Pertsona behartsuak Bainuetxeko tarifak ordaintzetik salbuetsita egonen dira, baldin eta auzo-unitate batean erregistratu eta zerbitzuak erabiltzeko txartela eskuratzen badute.	

III. EPIGRAFEA.- ALBAITARITZA-ZERBITZUAK	
Zerbitzu hauen erabiltzaileek Albaitarien Elkargoak kasuan-kasuan ezarritako tarifak ordaindu beharko dituzte kontroleko aplikazio informatikoak erabiltzeagatik.	
III.1. Amorruaren kontrako txertoa, identifikazioa (txipa) edo jabetza-aldaketa:	
- Kanpainako epearen barrenean	Nafarroako Gobernuaren tarifa bera
- Kanpainako epeetik kanpo	% 30eko errekgua
III.2. Osasun-txartel berria ematea:	7,25 euro
III.3. Txakurrak edo katuak Udalari ematea:	
- 4 hilabetetik gorako txakur edo katu bakoitzeko	52,15 euro
- 4 hilabetetik beherako txakur edo katu bakoitzeko	15,65 euro
III.4. Iruñeko Animaliak Hartzeko Zentroko animalien adopzioa: Tarifa hau ez zaie eskatuko Iruñeko Udalarekin lankidetz hitzarmenak izenpetu dituzten animaliak babesteko elkarte eta entitateei, baldin eta hitzarmen horietan adopzio-sistema aurreikusten badute.	10,40 euro
III.5. Pasaporte-agiria egitea, konpainiako animaliek Europako Batasunean salerosteko asmorik gabe zirkulatzeko:	20,85 euro